

MEMORIA HISTORIKOA LITERATUR FIKZIOTIK

Ezkabamendia. Berriz. Denboraren masalezurra. Denbora-pasa ohikoena dugu denboraren beraren masalezurrari ihes egitea. Baina denbora ez da gure memoriaren adarretara inguratzen den zakur gogalkarria. Denboraren masalezurra hezurduran daramagu. Gure-gurea.
(Ehiztariaren isilaldia)

“Ez dut sinesten memoria historikoan”, idatzi du nire Ehiztariaren isilaldia eleberriaren narratzaileak bere ohar-kaierean. Ziurtasun osoz ezinen nuke zehaztu pertsonaia haren zioak halako baieztapenik (edo ukapenik) egiteko, are gehiago memoria historikoarekin loturiko ikerketa batean ordu asko ematen ari delarik, baina demagun nobela hura idazten amaitu nuenetik ez dudala izan pertsonaiarekin solastatzeko aukerarik, aipatutako baieztapenaren zioak argitze aldera. Artikulu honetan saiatuko naiz sakontzen kontu horretan.

Ateraldi bitxi bat? Amarru bat irakurlea zitzatzeko, haren kontzientzian zirikatzeke, haren sentsibilitatea zauritzeko? Baliteke. Errekurtsio literario bat, beraz, literaturaz ari baikara. Jakin banekielako halako nobela baterantz hurbilduko zen edonork memoria historikoaren beharrea sinesten duela. Nik neuk memoria historikoaren berreskuraketan eta transmisioan irmoki sinesten dudana bezala. Are gehiago: ezinbestekotzat jotzen dut memoria historikoa ez bakarrik nor garen, non gauden eta nondik gatozen jakiteko, baizik eta nora joango garen ezagutzeko ere. Eta are gehiago: hain garrantzitsu deritzot memoria historikoaren ezen adierazkortasun eskasekoa iruditzen baitzait halako izena.

Zertaz hitz egiten dugu memoria historikoaz hitz egiten dugunean? Nire ustez historialari ez garenok edota gai horretan espezializaturik ez gaudenok irudika dezakegu erantzun baliagarririk, era intuitibo batean bederen. Baina nork bere buruari galdera eginez gero, eta oraindik historialari

LUIS GARDE

EUSKAL IDAZLEA.

ez garenoz ari naiz, ataka txarrean ikusiko genuke geure burua ideia hori hitzetan zehazteko. Irakurleak ulertuko duenez, hasieratik esan nahi dut nire artikulua honetako hausnarketa, nonbait, aldizkari honetako beste hausnarketa batzuk ez bezala, kanpotik egindakoa izanen dela, historia ikasketak egin ez dituen hiritar batek eginak. Zer esanik, hala ere, badut. Nire memoria historikoari ikuspuntua zientifiko ez bada ere, memoria historikoarekin zerikusirik duen eleberrin baten egile gisa emanen ditut iritzi batzuk. Esan dezadan, dena den, memoria historikoarekin batez ere hiritar gisa inplikaturik sentitzen naizela; bestela esanda, gizarte baten partaide gisa, zeinean mota askotako bortizkeriak eta giza eskubideen urratzeak gauzatu baitira.

LURRALDE EZBERDIN BATETIK

Historia eta memoria historikoa, hortaz, edozein hiritari bezala dagokit. Bestalde, aipatu dudan lurralde ez-zientifiko batetik jorratu dut memoria historikoaren gaia. Lurralde berezi, propio eta hagitik pertsonal batetik esango nuke, lurralde hori literatur fikzioa baita.

Zertan datza fikziogile batek egin diezaiokkeen ekarpena memoria historikoaren gaiari?

Zertarako balio du gizarte batean gertatuko jazoera lazgarriak kontatzeak eta birkontatzeak? Nire nobelaren narratzaileak sarri galdatzen dio horrelakorik bere buruari. Errazkeria litzateke «sarraskirik berriz gerta ez dadin, halako gertaerak errepika ez daitezen» erantzutea. Askotan irakurri dugu halako esaldi ederrik han edo hemen. Baina ez, nire literatur lanaren justifikazio polita baina onestasan gabekotzat jotzen ditut mota horretako erantzunak. Nahiko genuke, nola ez, bortizkeriaren aurka idaztearen fruitua baliagarria izatea, neurri apalean bederen, etorkizunean gizakiok bortizkeria erabil ez dezagun gure arazo sozial edo ekonomikoak baita pertsonalak ere konpontzeko. «Ez errepika ez dadin, baizik eta errepikatzen delako», da pertsonaia horren ahotan

jartzen dudan gogoeta, egitiaz hurbilago ikusten dudana erantzuna. Behartuak gaudelako behin eta berriz errepikatzen diren gertakizunei buruz behin eta berriz idaztera. Nobelaren berean zalantzan jartzen da literaturaren erabilgarritasuna gertakari lazgarriak gogoratzearen ariketan. Kutsu autokritiko batekin esaten da, non eta hain justu gerra batzuen (ez bakarrik 36ko gerraren) hainbat gertakari latz gogoratzearen ariketari orri eta ordu anitz eskaintzen zaizkion eleberrin batean. Ez naiz izanen, beraz, horren eszeptiko eta ontzat emanen dut honako argudio hau: sarraskia fikzionalizatzearen lanak zerbaiterako balio du, irakurtzearen plazer (edo displazer) hutsetik harago.

SARRASKIAZ IDAZTEA

Beraz, sarraskiaz idazteak galarazi du sarraskiaren errepikapena, neurri apal batean bederen? Argi dago ezetz, baina nik buelta emango nioke argudioari: gertatutako sarraskiez idatzi ezean, zein egoeratan legoke geure mundua? Dagoen bezalaxe edo agian apurtxo bat makalago? Ez dakigu. Baina ezin dut ekidin pentsatzea gure behar moraletako bat sarraskiaz idaztea dela, alde aurretik jakinda lan horrek ez duela inolako eraginik izanen gertakarien mundu errealean.

Ez dut sinesten literatura kontsumoko artikulua hutsa denik. Ez nobela errealtate gordina saihesteko tramankulu denik, ez poesiak gure munduaren eta naturaren edertasun zoragarriak laudatzeko bakarrik balio duenik. Ez, bederen, gustukoa dudana literatura motak. Ehiztariaren isilaldian esaten da: kartzela hartatik ihesaldiari buruz mintzo den nobela bat ezin da errealtatetik ihes egiteko nobela. Interesatzen zaidan literatura gizakiaren baitan ikertzen duena da; gizakiaren izaera eta gizartearen ibilkera ikertzen duen literatura, alegia.

Alda dezakegu iragana? Ez, noski. Baina nire susmoa da iragan deitzen dugun errealtate hori ez ote den eraikuntza bat. Konstruktio bat. Jarraian,

etengabe eraikitzen dugun errealitate subjektibo bat. Iraganaren ezagutzak baldintzatzen ahal du etorkizuna? Maila pertsonalean bai. Zergatik ez gizarte mailan.

Zertarako balio du memoria historikoaren ariketak? Nire ustez, horren aise engainatua ez izateko. Memoria historikoa berreskuratzea eta eraikitzea ez da bakarrik atzera begiratzea. Ez da iragan hil baterantz begiratzeko ariketa antzua. Behin batean neskatxo gazte-gazte batek, Ezkabako presoan omenez ekitaldi batera gurasoek erdi beharturik joan eta gero, horiek “zaharren kontuak” direla esan zidan. Egokiera hartan ez nuen astirik izan neskatxoari esateko memoriaren berreskuratzerako egintzak ez direla bakarrik iraganari begira egiten; orainak eta etorkizunak ere memoria eduki dezagun eskatzen digutela. Memoriaren ariketa eta esfortzua egin dezagun. Botereek gure memoriaren edukiera determinatzen saiatzen dira, beraien neurriko hiritar izan gaitzen. Haurren hezkuntzaren eta helduen berrezkuntzaren bidez, gure gizartearen botere politiko, ekonomiko, erlijioso eta ideologikoen beraien egia sinetsarazten dizkigute. Memoria ezinbestekoa da, horrexegatik, edozein gizarteko hiritar kritikoa izateko. Zenbat eta memoria handiagoa, orduan eta zailago manipulazioa.

Memoria historikoa berreskuratzea eta eraikitzea ez da bakarrik atzera begiratzea. Ez da iragan hil baterantz begiratzeko ariketa antzua

Immanuel Kantek idatzi zuen gaizkiaren existentziaren problema ezin dela izan halaberharrez Jainkoaren izaerari eta justifikazioari loturik. Gizakien egintza ankerrak gizakien egintzak direla; hau da, gizakien askatasunaren ondorioa. Beraz, gure ekin-tzen erantzukizun moralak guregan dago; ez naturaz haraindiko izaki batengan, ez itxuraz noble edo onuragarri izan daitekeen kausa abstraktu batean. Hortik ere abiatu zen Hanna Arendt bere entsegetan giza

gaizkiaren hausnarketei ekiteko. Ez dira gutxi Arendt-en gizakiaren gaizkiaren banalitatearen hipotesian inspiratu diren idazleak euren fikzioetan giza gaizkiaren arazoaz idaztean.

Ez, literatur narrazio bat ez da zientzia. Ez da egia errebelatua. Baina gizarte batek errelatoen bidez antolatzen ditu bere mitoak, bere sinesmenak, bere baloreak. Kontzientzia moralak narrazioen bidez espresatzen da; narrazioek berberak laguntzen dute gizakiaren kontzientzia moralak eratzeko. Memoria historikoa, nik ikusten dudana moduan, memoria kolektiboaren alde ezinbestekoa da; memoria kolektiboa, hurrenez hurren, memoria pertsonalaren alde ezinbestekoa dugu. Eta memoria ez da elikatzen errelato historiko-zientifiko soilekin; gizaki zehatzei gertatutakoaren narrazioak ere behar ditu. Narrazio horiek fikziozkoak izan arren, beraien xehetasunetan gizarte batean gertatzen denaren adibideak dira. Gertakari ankerren literatur kontaketatik abiatuz, mota askotako bortizkeriaren biktimek jasandako minaren dimentsiora hurbil gaitzeko.

Gurean badaude memoria historikoa aldarrikatzeko zio asko. Hainbeste urtez santifikatu izan zen Trantsizio paktu delakoaren ondorioz, Estatu espainiarrean ezarri zen erregimen politikoa kalitate eskaseko demokrazia bat izan zen, esparru anitzetan formalagoa errealagoa baino. Iraganaren ahazmena izan zen sistema berria ezartzeko ezinbesteko baldintza, artean agintean zeuden botere politiko eta militar faktikoen onespina lortuko bazen. Are lazgarriagoa izan da errealitate hori Nafarroaren kasuan, zeren lurralde honetan botere politikoa nahiz erlijiosoa nahiz mediatikoa 36ko eskuinaren eskuin sasidemokratikoak monopolizatua izan baita. Egia da, bestelako lekuetan bezala, postfrankismo betean ekin zitzaizkion fusilatuen gorpuak eta haien memoria berreskuratzeke hainbat ekitaldirik; egia da, adibidez, jada laurogeiko hamarkadan hasi zirela antolatzen Ezkabako Gotorleku ondoan urteroko ihesaldiaren urtemugan egiten den omenaldia; baina egia da, zoritxarrez, ekitaldi horiek ez zutela jasotzen ez bakarrik inolako laguntza instituzio demokratikoen aldetik, baizik eta duela gutxi urte arte egintza horiek alegialitate hutsean, ezkutuan, egin zirela. Halako jarrera lotsagarriak bere barne-logika izan dezakeela ondorioztatzen ahal dugu, kontuan hartzen badugu gure agintari nafarrak eskuindar haien ondorengoak izan direla, bai ideologia arloan bai soziologia arloan. Baina hagitez mingarriagoa izan da ezkerreko alderdien jarrera. Ezker “moderatuak,

laurogeiko hamarkadan boterean egon denak, interes politikoak direla eta ez zuen agertu inolako interesik memoria historikoarekin erlazionatzen zen deusekin. Are mingarriagoa ustez ezkertia go eta errepublikanoago diren beste alderdi batzuen isiltasuna; ezker abertzalearen isiltasuna barne. Nor bere eguneroko joko taktikoetan boterera heltzeko edo botereri eusteko begira, nor bere proiektu utopikoaren aldeko borroka antzuan... Elkertasun gutxi eta enpatia eza izan dira jarrera ohikoenak, artean zauriak sendatu gabe zituzten sarraskiaren biktimekin. Euren burua ezkertiar edota abertzale porrokatutzat definitzen zuten iruindar eta nafar askori galde geniezaiekeen, abstrakzio handi ederrak alde batera utzita, zer zekiten Ezkabako ihesaldiari buruz, zer frankismoaren biktima *errealen* min *errealari* buruz. Zer nekien, noski, neure buruari galde niezaiokeen. 36ko sarraskiari buruz ez genekien ia deus, bai gure interesak bai gure irudimena beste leku batzuetan zeudelako. Beste alde batera begiratzen genuelako. Trantsizioan gauzatu zen ahazmenaren aldeko itunaren eragina ez zen bakarrik sistemako alderdietara hedatu; ezkertiarren eta abertzaleon artean nagusitu zen ahazmenaren legea, nolabaiteko borondatezko itsutasunaren legea. *Nafarroa Euskadi da* oihukatzen zen gogoz Euskal Herri osoan, premiazkotzat jotzen baikenuen (jotzen baitugu) herri baten eraikuntza instituzionala non Nafarroak ezinbestez dagokion lekua hartuko zuen. Baina egia da, nire ustez, urgentzia eta premia horiek memoria historikoaren eraikuntza galarazi zutela. Gure artean ere etxeko kontsumorako egia *ofizial* bat onartu genuen: Nafarroa Euskal Herriko ardatz edo ama edo herrialde baldin bazen, nafarrok frankismoaren biktima ginen. Egia historikoa, hala ere, ez zaio egokitzen baieztapen horri bere gordinen. Alde batetik, lurralde honetan kolpistek eragindako errepresioa basatia izan zen; frankismo luze-luzean jasandako errepresio politiko eta kulturala beste herrialdeetan gertaturikoarekin alderagarria da; baina guk ez genuen ikusi nahi nafar boluntarioen garrantzia bai uztailaren 18ko kolpean bai gerra zibilean, frankisten garaipenerako erabakigarria izan zena batez ere iparreko frontean.

Zertara dator hausnarketa hau? Memoriaren errepresioa ez dator bakarrik botere politikoetatik. Denok egiten dugu gure banakako ekarpena memoria kolektiboari eta memoria historikoari; gutariko edonor izan gaitzake kolaboratzaile isiltasunaren eta ahazmenaren estalduren hedapenean. Iragana, memoria, hala maila kolektiboan nola pertsonalean jarraian eraikitzen edo eraisten dira, etengabe

birpentsatzen eta aldatzen doaz. Denok gara errealitate mugikor eta aldakor haren partaide, gure ekintzekin eta gure omisioekin, gure hitzekin eta baita gure isiltasunarekin ere. Literaturak, gertakarien narrazioak, ekarpen ezinbestekoa egiten du memoriaren eraikuntzaren eta transmisioaren prozesuetan. Ikerketa eta narrazio ez-zientifiko den literatur esparru hori diskurtso historikotik kanpo geratzen da, noski, baina haren prozeduretan eta helburuetan arras bestelakoa izaki, zilegi da sarraskia narrazio fikzionalizatuan jorratzea.

Botereek gure memoriaren edukiera determinatzen saiatzen dira, beraien neurriko hiritar izan gaitzen [] Memoria ezinbestekoa da, horrexegatik, edozein gizarteko hiritar kritikoa izateko

Iruzingile batek nire nobelari buruzko iritzia ematean, idatzi zuen lan hori «ezinbestekoa da memoria edulkoratu nahi dutenen aurrean». Arras adierazkorra iruditu zitzaidan kazetariak aukeratu zuen «edulkoratu» aditz hori, bereziki esanguratsua delako paragrafo hauetan azaltzen ari naizen ideiak definitzeko. Nobelan zehar aipatzen denez, gerra bat irabazten dutenek ondorengo memoriaren gerrak irabazteari ekiten diote. Eta lortu lortzen dute, noski, horretarako ahalbide guztiak beren esku dituzte-eta. Historia, iragana, oraina beren neurriari idazten dute. Errealitatea bera idazten dute. Ahazmena eta ez-memoria eraikitzen dute. Gertakari batzuk ezabatzen dituzte, beste batzuk asmatzen edo berrasmatzen dituzte. Berdin izenekin, ideiekin, interpretazioekin. «Asmatu» eta «faltsutu» izan litezke hemen hitz nagusiak memoriaren ibilbidea definitzeko. Eta «edulkoratu» hori? «Edulkoratzea» arestian aipatu dudan mekanismoa da, zeinaren bidez nork bere memoria faltsutzen baitu. Memoriaren tranpak. Saihetsezina da, nire ustez, nork bere iragana, bere egintzak, bere ez-egintzak zuzitzea, bere buruarekin gutxieneko lasaitasun batean biziko bada. Gizakiaren memoria ere hutsunez, zuloz, ahazmenez, asmakizunez eta berreraikuntzez egina baita. Bizitzaren lanbidean lagunduko dizkiguten justifikazioz ehuntzen dugu

gure memoria. Egia ofizialek ez dizkigute historia osoak ematen; botereek hedatutako egia ofizial horietatik harago joan behar dugu iragana ezagutzeko. Norberak ere bere egia “ofizialak” ditu, kontziente edo inkontzienteki aukeratzen dugu zertan sinetsi eta zertan ez; egokitu zaizkigun errealitateei buruzko gure ikuspegiak eta gure iritziak eratzera-koan aukeratzen dugu zein gertakariak hartuko ditugun kontuan eta zeintzuei itsuarena eginen diegun.

Horrelako zerbait gertatu zaio *Ehiztariaren isilaldiaren* narratzaileari. Beste batzuek utzitako lekukotasunak eta memoriak ikertu bitartean, berak bere memorian «ahaztutako» hitz batzuk, gertakari xume batzuk, oroituko ditu. Eta ahal bezala aurre eginen die; era batean edo bestean bere gain hartuko ditu. Azkenean zerbait ikasiko du, edo bere ondorioak bederen aterako ditu, idazteari ekin eta bere burua ispilu aitzinean jartzearen prozesu horren ondoren.

Trantsizioan gauzatu zen ahazmenaren aldeko itunaren eragina ez zen bakarrik sistemako alderdietara hedatu; ezkertiarren eta abertzaleon artean nagusitu zen ahazmenaren legea, nolabaiteko borondatezko itsutasunaren legea

Beti dut gogoan Stendhalen nobelaren definizio hura: «nobela ispilua da, bidean zehar dabilena». Nobela mota batean pentsatzen eman zuen definizio hura idazle frantziarrak, nobela «errealista» deitzen diogun horretan hain zuzen, baina nago «ispiluaren» irudi hori edozein literatur lan definitzeko baliagarri dela. Lehenik eta behin, egilearen beraren erretratu eskaintzen du lan literarioak. Nahitaez. Nahiz eta eskura dituen amarruak erabili. Modu kontziente edo inkontziente batean, obrak egileaz zerbait esaten du, sarri egileak berak nahi zukeen baino gehiago. Oraingoan ez naiz nitaz ari; artikulua honetara ekarri nauen narratzaileaz baizik. Bere haurtzaroaren bizipen batzuk bultzaturik, beste gizakien memorietan arakatzen du, eta azkenean aurkituko duenak berarekin ere harreman sendoa eta sakona izanen du. Bere memoria pertsonala ere, bere iragana, hau da, bere iraganaren eraikuntza memorian, aldatuta geratuko da. Besteen

memoriek *kutsatuta*, ez onerako ez txarrerako, hori ez baita kontua. Memoriari buruz idazten hasi den poeta hori bere memoriaren *edulkoraziotik* urrunduko da ikerketa lan horren eraginaz.

Edulkorazio horren alde bat nostalgia izan daiteke. Nostalgia hedabideetatik saltzen zaigun produktua da; bai telebistan, serie eta pelikula ugarietan; bai eta liburu batzuen bidez ere. Benetako industria, iragan gozatu bat saltzearena. Memoriaren beste tranpa bat besterik ez. *Ehiztariaren isilaldiaren* narratzaileak hasieratik saihesten du amarru hori, bere Ezkaba ondoko haur-denborak oroitzearen harira, kutsu ozpin gordetzen duten gertakari batzuk aukeratzen dituenean. Honakoa esanez bukatzeko: «Nire aldetik, nostalgia gutxi miseria moraleko garai haiei dagokienez». Ezkabaz hitz egitea, hala ere, bere umezaroaz solastatzea da. Jolasleku batez, mendi batez zeinak gaztelu misterioitsu bat zeukan gailurrean. Halarik ere, idealizazio ororen tentazioa bazterturik geratuko da, gaztelu horretan eta mendi-hegi haietan oso aspaldi gertaturikoaren lekukotasun zuzena jasotzen duenean. Bere oroimenean bat eginen dute oroitzapen batzuek eta besteek. Aurreantzean, eta talka horren ondorioz, narratzailearen memoria mingostuagoa geratuko da, zaurituagoa, bere kontzientzia hartze horrek (Heideggeren *argitze* edo *azaltze* hura) zail sendatzen diren zauri berriak urratu baizik ez baitu egiten. Holaxe da bizitzeko lana. Nor bere zauriekin bizitzea, bere zaurien bizikide izatea.

Memoria historikoaren eremuan, honakoa litzateke aski interesatzen zaidan galdera nagusietako bat: nola lor liteke gizarteek beren iraganaren kontzientzia har dezaten? Alde batetik ikerketa-lanen dibulgazioa genuke halako helburuaren bilaketan. Beste alde batetik sarraskien lekuko edota biktima izan zirenen memoriak. Hirugarrenez, fikzioaren ekarpena. Iraganari buruzko istorio askok eramaten ahal gaituzte hausnarketara, onartuta ere hausnarketa delako hori norberaren esparru intimoan gauzatuko dela, nire ustez irakurketaren ariketaren emaitza zail joan baitaiteke indibiduoarengandik harago. Ez da gutxi, dena den. Gizaki zehatzei gertatu zaionarekin identifikatzen gara beraien istorioa irakurri ahala. Narrazio horiek gure sen morala mugitzen eta astintzen ahal dute. Edozein fikzio irakurtzean gure pertsonaien egintzak epaitzeko gaitasuna trebatzen dugu. Narrazio bat irakurtzen dugunean, film edo antzerki-lan bat ikusten dugunean, lehen irudikatzen ez genuen giza ankerkeriaren alde batzuen lekuko

gara. Gizakiok gure kondizioarekin lotutako egia ezagutzeko, egia berorien alde atseginez eta desatseginez hausnarketa egiteko, historia eta istorio partikularrak behar ditugu. Izen eta abizen dituzten emakume eta gizon konkretuei gertatu zaizkien gauzen berri jaso behar dugu geure egia funtsezkoak ulertzeko eta ulertarazteko. Borgesek idatzi zuenez, «gizaki bati gertatzen zaiona gizaki guztiei gertatzen zaie». Gizaki guztioi gertatzen zaigu. Edo gerta dakiguke. Ezin da ukatu literaturaren alde laketgarria; ezin da ukatu literatura gure egia sakonenak ulertzeko tresna ezinbestekoa denik. Gure egia sakonenak ikertzeko, bederen. Ikerketa horri ekin dio, bere apalean, nire nobelaren narratzaileak, eta ibilbide horretan probetxugarri izango zaion egia batekin eginen du topo, behin baino gehiagotan bere burua ataka zailean ikusiz.

Narrazioak iritzi propio bat eratzen eta eraikitzen lagun diezairoke irakurleari. Pertsonaien aukeraketen berri jasotzen dugu; irakurri bitartean beraien jokaeren zergatiak ditugu jasotzen. Batzuetan, era esplizitu batean, narratzaileak edo pertsonaiak berak emanen digu haren jokaeraren berri. Beste batzuetan guk, irakurleok, ondorioztatuko ditugu jokaera horien zioak, eta, are garrantzitsuagoa dena, jokaera horien egokitasuna edota zilegitasuna. Fikzioaren helburua ez da datuen transmisio soilak. Ihesbide hutsa ez den narrazio baten irakurleak, hau da, irakurle aktiboak, bere epaiak, bere iritziak sortzen ditu pertsonaien ibilerak eta gorabeherak jaso ahala. Irakurketaren prozesuan, narrazioan sartzen gara, geure baitan ikertzen dugu guk holako edo halako egokieran nola jokatu genukeen geure buruari galdetzen diogunean. Narrazioei galdetzen diegu, narrazioek berberak gure jokaerez eta gure printzipioez interpelatzen gaituzte. Gure iritzi moralak eratzen laguntzen digute.

FIKZIOA, JOAN-ETORRIKO BIDAIA

Fikzioa, mitoa, istorioak, beti izan dira mundua ulertzeko giza tresnak. Mundua erreprezentatzen, eraikitzen eta azaltzen laguntzen diguten diskurtsoak. Fikzioa bidaia da; orain-oraingoa ez den beste egoera batera eramaten gaitu; bestelako izenak jartzen dizkigu. Baina joan-etorrikoa da fikzioaren bidaia: norberaren errealtatetik urruntze horrek, azkenean, gure oraingo egoerara itzultzen gaituelako. Irakurketaren barneko bidaia hori ez da bukatzen gure errealtatearen xehetasun bat ulertzeko laguntzen digun giltza berriren bat jaso gabe.

Iragana ulertzeko lana edo, hobe esanda, iragana ulertzeko prozesua, ez da inoiz ere amaitzen. Iragana beti dago interpretazio berriei irekia, irekia dago interpretazio zaharrak osatuko eta azken finean aldatuko diren datuei eta ideiei. Iraganeko gertakariak ezin dira aldatu, noski, baina ezkutaturik egon dena plazaratzen ahal da. Botereek egindako interpretazio partzial edo faltsifikatuen kontra beste interpretazio batzuk mahaiganeratu daitezke. Edozein gizarte dago bere iraganarekin etengabeko hartuemanean. Iraganarekiko dialogo hori gatazkatsua da halabarrez. Horren adierazle izaten dira karriken eta plazen izenak, plakak, monumentuak. Hortxe dugu, esaterako, Iruñeko bihotzean, Erorien monumentua eta haren presentzia eta erabilerekin sortzen diren noizbehinkako eztabaidak. Duela hilabete batzuk lortu zen plaza horren izen-aldaketa ofiziala, udalbatza berriak behingoz gainditu ondoren oraintxe arte nafar instituzioek monopolizatu dituzten eskuinaren amarru lotsagarriak. Gizarte demokratiko eta osasuntsu batek kapaz izan behar du bere iraganari aurrez aurre begiratzeko. Ulergarri izan daiteke iragana berrikusteko arazoan irautea gizarte batean non oraindik trantsizio mingarri eta gatazkatsua egiten ari baita diktadura batetik sistema demokratiko homologagarri baterantz. Baina oztopo eta arazo horiek ez dira horren ulergarri sistema demokratiko horrek hainbat hamarkada bete dituenean. Seinale, memoria kolektiboari eta iraganaren berrikuspenari dagokienez zerbait gaizki egin dugula.

1945eko otsailean, Mauthauseneko kontzentrazio esparruan presoan ihesaldi bat burutu zen. Iheslariak soldadu errusiarrak ziren; aliatuen tropak jada esparrutik hurbil zeudelarik, bostehun soldadu haiek ongi zekiten alemaniarrek ez ziratekeela handik lekutuko sarraskia egin gabe. Etsi-etsian gutxienezko egoera fisiko egokian zeuden presoek ihesari ekin

Memoriaren errepresioa ez dator bakarrik botere politikoetatik. Denok egiten dugu gure banakako ekarpena memoria kolektiboari eta memoria historikoari; gutariko edonor izan gaitzke kolaboratzaile isiltasunaren eta ahazmenaren estalduren hedapenean

zioten. Osteko uxaldian inguruko herrietako biztanle zibil anitzek jazarleekin bat egin zuten. Ihesaldiaren aurreneko orduetan preso asko, arropa eta oinetako egokirik gabe, erailak izan ziren elur gainean. Mendi, baso eta herrixka zurutuetan zabaldutako ehizaldia hiru astez luzatu zen. Jazarleak: armada alemaniarra, SSak, inguruko herrixketako jendarmeak, herritar zibilak. Azken horiek gonbidatuak izan omen ziren ehizaldian esku hartzera, inola ez soldaduek behartuta. Zoritxarreko jazarpen eta sarraski horrek Mühlviertel Hasenjagd izena jaso zuen biztanleen artean; hau da, Mühl eskualdeko unxi-ehiza. Handik berrogei urtera, 1984an, Elisabeth Reichart idazle austriarrak nobela bat argitaratu zuen gertakari hura gaitzat hartuz, Februarschatten alegia, bost urte geroago ingelesez February Shadows izenburua hartuko zuena. Eleberria bakarrik luze eta etenduraz betea da. Hildak, adinoko emakume austriar batek, haurtzaroko gertaera batzuk oroitzen ditu. Loturarik gabeko gomutek, xehe-tasun ulergaitzek, senideei luzaroan isildutako arrangurak osatzen dute andre zaharraren barne-bakarriketa. Bere memoriaren hondar atzera-egitean, denboraren lanbrotik Mauthauseneko iheslari erusiarrak atera eta, kontzentrazio esparrutik ihes betean, babes eske hurbildu dira Hilda txikiaren gurasoen etxera. Oroitzape-nak zehatzagoak dira oraingoan, segida logikoagoan jariatzen dira. Gogoaren traba eta tranpa guztien aurka borrokan, azkenean gurasoek jazarle militar eta zibilei eman zioten kolaborazioa aitortu dio bere buruari. Huraxe zen hainbat urtez Hildak memorian lurperatuta gorde zuen isilekoa. Eleberrigileak berak hondar ohar batean aipatzen duenez, eskualdeko hiritar austriarrak, gehienak nekazariak edo merkatariak, «apolitikoak» izan ziren ordura arte, giza ehizaldian borondatezko esku hartzaile izan baino lehen.

Ezkabako errelatoari ekin nionean, argi nuen gauza bakanetakoa zen narrazio hura ez zela nobela historiko bat izanen

Ahalik eta agudoen eskuratu eta irakurri nuen Ezkabako gertakariarekin eta nire narrazioarekin horren paralelismo handia agertzen zuen nobela. Planteamendu literarioaren aldetik, hala ere, arras ezberdin

suertatu zitzaidan, beste arrazoien artean, liburu honetan gertakari lazgarri haren inguruan ez dagoelako inongo azalpenik testuinguru historikoaren aldetik. Narrazio horretatik ondoriozta daitekeenez, Austrian Mühleko giza ehizari buruz idazten ahal da inongo «testuinguru historiko»rik aipatu behar gabe, hau da, benetako gertaerak, izenak, datuak edota datak zehaztu gabe; gaiari eusteko nahikoa izan daiteke urte anitzen buruan gogoz kontra oroitzen duen andre zahar baten dibagazioei jarraitzea. Zergatik testuinguru horren falta? Irakurle austriarrek badakitelako zertaz ari den narratzailea, badutelako nolabait ere gertatu zenaren berri: aurretiko memoria-lanen bat egina dagoelako, antza. Nire kontaketa, alderantziz, sartu behar izan nituen zirkunstantziak, xehetasunak, leku eta data batzuk, zenbait izen eta gertaera zehatz, irakurleek historia haren aurrekariak beregana zitzaten. Zertaz ari garen jakin zezaten. Zergatik? Aurretiko memoria-lanik egin ez dugulako. Ezkabako adibidearekin jarraitzeko, duela urte gutxi arte, iruindar gutxiak zuten Ezkaban gerra zibilean gertatutakoaren berri. Gutxiak zekiten Iruñetik ikus daitekeen gotorleku abandonatu hura torturaren eta heriotzaren leku bat izan zela. Gaur egun ere, seguru asko biztanle gehienek presondegiak eta ihesaldiaz ideia orokor bat baizik ez dutela esango nuke. Hain da eraginkorra ezmemoriaren lana, ezen “Ezkaba” mendiaren izena, “San Cristobal” izenaz ordezkatuta, duela berrogei edo berrogeita hamar urte kasik guztiz ezabatua baitzegoen iruindarren oroimen kolektiboan, Iñaki Alforjaren filmaren hasieran egiaztatzen den bezala. Iruñeko Media Luna parkean, paseatzen ari ziren iruindar batzuk geldiarazi, eta Ezkaba bera atzean ikusten delarik, Ezkaba zer den galdetu, eta beraietako anitzek ezin erantzun, ez jakin ezta bizkarrerean duten mendiaren izena dela. Zer esan ihesaldiari berari buruz.

OIHU ISILA

Sydney Lumet-en The Pawnbroker (“Maileguemailea”) filmean, Sol Nazerman kontzentrazio esparruan sartutako judua da. Pelikularen eszena nagusian, Nazerman bere mina eta etsipena oihukatzen saiatzen da, baina keinu isil bat baizik ez du egiten lortu. Pertsonaiak jaso dituen horroreak ezin dira hitzen bidez adierazi, ezta ere gizazpiko bizi egoera hartatik askatua izan ondoren. Zaila da bizipen izugarriak hitzen bidez adieraztea. Lehenik eta behin, beste aldean lekukotasunak nork entzungo dituen aurkitzea ez da erraza. Gurean ere, aipatu dudanez, garaileen

legea, isiltasun behartuaren legea alegia, hedatu zen ez bakarrik gerraostean, ez bakarrik frankismo luzean zehar, baizik eta demokraziaren zenbait hamarkadatan zehar. Bestalde, horrelako bizipen izugarriak jaso dituzten horiek lengoaiaren mugen kontra egiten dute talka adierazgaitza dena hitzen bidez adierazi nahian. Nazien kontzentrazio esparruetako preso ohi askok memoriak idazteari ekin zioten bertan jasandako bizipenei zegokienez hainbat urte isilik egon ondoren. Beraietako ez gutxi suizidatu ziren isildutako guztiaz idazten bukatu aitzin. Zerrenda luzea da. Halako lekuetatik bizirik atera, gerraostetik ere bizirik atera baina idazketatik ezin. Nork bere burua berreraiki, bizitza berri bat bideratu eta hainbat urte geroago ezin bizirik atera memoriaren berpiztearen ariketatik. Lekuko eta biktima horien testigantzak (Primo Levi, Imre Kertesz, Victor Frankl-enak, ezagunenetakoen artean hiru adibide jartzeagatik) ezinbestekoak dira, giza portaera ikertu nahi duen edonorentzat.

Fikzioaren arlotik ere zailtasun handiak agertzen dira gertakari lazgarrietan oinarritutako argudioak lantzeko egokieran. Fikzioak barne koherentzia eta egiantzekotasuna eskatzen du. San Kristobal Gotorlekuan egunero gertatzen zenaren kontaketa sinesgaitza da gehiegizkoa izateagatik: gertakari ugari ezin dira nobela batean sartu, sinetsiko ez genituzkeelako; eta hala ere... egiazkoak dira. Horrela, gertakari erreala oinarri hartuta idazterakoan, nik ikusten nuen errealtate gordina epeltzeko beharra, baldin eta literatura gisa funtzionatu behar bazuen errelatoak. Errealtatea adierazteko zailtasun horretatik sortzen idazteari ekin baino lehen aurreikusitako ez nuen kontraesan bat: errealtate hori, sinesgaitza bere gordinean, epeldu behar sinesgarri egin behar baldin banuen, hain justu gertakari horiek modu literario batean lantzeko. Zein da aterabidea kontraesan hori gainditzeko? Nik ez dut aurkitu. Bestalde, biktimekiko errespetuak berak eskatzen zidan haien izenak isiltzea. Halako gertakarietara hurbiltzeko era guztiz ezberdinak daude, bakoitza bere arazoekin: errelato historikoa, zientifikoa (edo ez hainbeste); lekuko eta biktimen memoria pertsonalak; eta fikzio narratiboa. Ez dira falta fikzioari ekarpen hori saiartzeko zilegitasuna ukatzen dioten idazleak, pentsalariak, iritziemaileak. Are gehiago, badago memoria historikoaren gaia fikzio literaturatik lantzea etikoa ez dela esaten duenik. Argudio horri ere ez diot deusik kontrajarriko. Nork nahi duena idatz dezala, nork nahi duena irakur dezala; irakurleak emanen du iritzi bidezkoena. Askatasunaren defendatzaile izaki, literaturaren esparruan ez dut epailearena egingo, are

gutxiago testuz harago doazen idazle baten asmoen epailearena. Aski dut esatearekin bilatzen dudana literatura, asetzen nauena, giza kondizioaz pentsarazten didana dela.

MEMORIA BAIZIK EZ GARA

Hainbat adjektibo ezberdin darabilgu giza memoriaren aldeak zehazteko: memoria pertsonala, kolektiboa, historikoa, bisuala... Horiek denak errealtate baten agerpenak dira. Batzuek besteak kutsatzen dituzte. Norberaren mundu-errepresentazioa, hala iraganekoa nola orainekoa, oinarritzen da bai bere bizipenen interpretazioetan bai besteengandik jasotako interpretazioetan.

Eztabako errelatoari ekin nionean, argi nuen gauza bakanetakoa zen narrazio hura ez zela nobela historiko bat izanen. Alde batetik, gustu kontuengatik; nobela historikoa ez baitut bereziki atsegin. Bestalde, nobela historikoetan jorratzen diren argudioak eta pertsonaiak nonbait "hilda" daude; hots, azpigenero horretan lantzen diren gaiek ez dute eragin berezirik gaurko gizarteetan. "Literatur arkeologia" deitzen diot nobela historikoari, gutxiespen kutsurik gabe. Nire narrazioan bertan agertzen da nobelaren azpigenero horren adibide bat, hemeretzigarren mendean gertatutako bigarren gerra karlista aipatzen dudanean. Ezkabako Gotorlekuaren eraikuntzaren harira, garai hartan Iruñeari karlistek jarritako setioaz arduratzen da narratzailea haren ikerketaren hasieran. Setio harekin lotutako zenbait pasarte anker ere berreskuratzen dira. Ondorioa da gertakari haiekin nobela historikoak idatz daitezkeela; entretenimendu hutserako eta gutxi gehiagorako ematen ahal duten horietakoak. Baina Ezkabako gertakariak, 36ko gertakariak, beste literatur trataera eskatzen dute, guztiz ezberdina. Hain justu, historia horiek bukatu ez direlako. Oraindik ere ez dira zauriak sendatu, irabazleek ezarri zuten isiltasunaren legeak duela gutxi arte iraun duelako. Egunero diarioetan irakur ditzakegu ikerketa berrien emaitzak, argira ateratzen den hezurduren argazkiak ikusten, beren mina modu duin batean azaldu ezin izan duten biktimen senideen testigantzak irakurtzen ditugu. Hor dago San Cristobal Gotorlekua bera, Ezkabako gailurrean, hutsik, egunez egun zikinago eta eroriago. Ejertzitoaren jabetza da oraindik. Duela urte banaka batzuk, Madrilako Kongresuak diru-kopuru bat onartuta, Ejertzitoak kontratatutako enpresa batek garbitzeko eta berritzeko lanei ekin zionean,

faltsutze lanak egiteko aukera profitatu zuten jabeek. Patioa ixten zuen murre bat kendu zuten, baita ere sarreran zegoen plaka bat non irakur zitekeen Francoren esaldi bat bere sistema penitentiarioaren onuren aldarrikatzaile. Elementu horiek ezabatu ziren Gotorlekua iragan lazarria mozorrotze aldera. Horrela, geroago antolatu ziren ikustaldi publikoak ingeniari militarren artelan modukoa aurkezten zen eraikuntza. Deus ere murre haien artean gertatu zenaz, deus ere leku haren benetako historia ankerraz. Oraindik ere ez dago egitasmo bat presondegia giza duintasunaren aldeko memorial bihurtzeko, hainbat herrialdetan antzeko eraikuntzekin egin den bezala. Memoria eraiki egiten da; ahanztura ere eraiki egiten da, kasu honetan gezurraren eta faltsutzearen bidez, baita inoiz guztiz amaitzen ez den isiltasunaren bidez. Horregatik gertatu zenaren kontaketa hutsa ez da aski, historia biziez aritzen ari garelako. Bigarren aldea, bigarren kontaketa, lehenengoaren jarraipena, min isilduaren kontaketa da. Eta horretarako tresna egokia izan daiteke literatur narrazioa.

Egunsenti alderat
Gotorlekuko harresiak gartzen dira
xori hotz pausatu batek behatzen baditu.
Beren izenak azazkalez izkiriaturuz
ziegez jabetu ziren itzalak.
Zehazki jasota daude
ahanzturaren erregistro karezatuetan.
Txolarreek sastraka itsuan mokoka
harrei iraurarazten diete.
Honelako egunsenti dardartietan
Ezka bako harresi bakoiek dirakite
xori gori batek begietarazten baditu.

Hacia la hora del amanecer
arden los muros del Fuerte
si un quieto pájaro frío los mira.
Aquellas sombras hicieron suyas las galerías
escribiendo sus nombres con las uñas.
Están minuciosamente inscritos
en los registros encalados del olvido.
Los gorriones cabecean en el matorral cerrado;
ellos hacen perdurar las piedras.
En estos amaneceres temblorosos
hierven los muros solitarios de Ezkaba
cuando se reflejan en los ojos quietos
de un pájaro incandescente.

Azkarrago, ibiltaria,
ez geldi hemen,
ez hautsi datak ez izenak,
gizon arinen arnasketa bezain arin izan
eta oin zaluz segi ezazu;
ez zapaldu astunki beirazko lur hau,
ilargi herriaren botiletako arnasa
zapaltzen ari baitzara.

Apresúrate, caminante,
y no te detengas,
no quiebres sus fechas ni sus nombres,
sé tan leve
como el respirar de aquellos hombres leves
y pasa con pie ligero;
no pises fuerte esta tierra de cristal
porque pisas su aliento:
el aliento en las botellas del pueblo de la luna.



NURIA HERNÁNDEZ PINTOR.

Bilbao 1974. Licenciada en Bellas Artes. Ilustradora y diseñadora gráfica.
Seleccionada en la Feria Internacional del libro de Sharjah, Emiratos Árabes 2016.
Finalista Premio Euskadi de Ilustración 2011.
Premio "Peru Abarka" de álbum ilustración 2010.